



Negu giroko Gabonak

Abenduaren 24an hasi eta urtarrilaren 6ra bitarte tenperatura baxuko egunak izan dira / 6-9

AIURRI

Urte Zaharreko lasterketak

Andoainen eta Urnietan ehunka izan ziren korrika eginez urtea amaitu zutenak / 10-11

Jendarteari Bilboko manifestaziora hurbiltzeko deia luzatu dio Sare herritarra ekimenak / 4

Adrian Cumbres Alonso gazte urnietarraren estreinaldia, larunbat honetan, Saroben / 15

Aiurrikide izatea **%30 merkeago**

Aiurrik **lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena** jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

Aiurriko harpidedun zaren horri, **zerga onurak ezarriko zaizkizu 2025eko jardueran** Aiurri egin diozun ekarpenarengatik.

Horrenbestez, zure kuota **%30 merkatuko** zaizu errenta aitorpena egiterakoan.



Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez aiurrikide

**AIURRI
KIDE**



IN MEMORIAM

Patxi Etxeberria Zubiria, bertsolaria

Orion jaio eta Lasarte-Orian bizi bazen ere, Urnietan bereziki estimatua izan zen haren bertso jarduna. Makina bat bider abestu zuen San Isidro egunean, Azkorteako erromerian eta Sanmieletan

Xabier Lasa ANDOAIN

Orioko Erretzabal baserrian jaio zen 1930ean, eta joan zen abenduaren 28an hil zen Lasarte-Orian. Izan ere, ezkonduz geroztik, Buruntzaldean egin zuen bizimodua. 1959an, Aginagako bertsolari gazteen txapelketan lehen aldiz plazaratu zenetik, mende erdia baino gehiagoko ibilbidea egin zuen, harik eta 2017an, 86 urte zituela, jendaurreko bere azken plaza egin zuen arte, Lasarte-Oriako San Pedro jaietan, hain zuzen.

Landidez arrain-saltzailea izan zen, Inaxi Etxeberria emazteak eta biek elkarrekin ireki zuten negozioa.

Patxi Etxeberria hizketan bezala kantuan aritzen zen bertsolari belaunaldi bateko kidea izan da; gure artean bizirik geratzen zen azkenekoa ziurrenik. Bertsolari gisako 60 urtetik gorako ibilbide luzean, hainbat belaunaldi izan ditu bidaide kantuan: batzuk aipatzearen, Uztapide, Basarri, Lazkao Txiki, Garmendia, Lizaso aita-semeak, Amuriza, Peñagarikano, Egaña, Lujanbio, Mendiluze, Muñoa, Gaztelumendi, Labaka, Rekondo, Laburu, Agirre...



Patxi Etxeberria. AIURRI

Urnietan, estimatua

Maiz etorri zen Lasarte-Oriatik Urnietara bertsotan aritzera. 2009an bere bizitza eta bertsoak biltzen dituen liburua besapean zuela egin zuen saioa Urnietan. Orduko hartan egindako elkarriketan, galdera egin zion Aiurrik: "Zenbat urte dira Urnietara zatozela?". Eta, honatx, erantzuna: "Joan deneko 30 urtetan ia hutsik egin gabe hots egin didate Urnietatik, bertsotan

jardun nezan. Urteko nire bertso jira Urnietan, Azkorten hasten da, maiatzaren 3an, Santa Krutz egunean. Hurrengo astean, berriz ere Azkorteira noa, Lasarte-Oriako Ttakun elkarteak antolatutako jaira. Hirugarren saioa, berehala, San Isidro egunean izaten da maiatzaren 15ean, baserritarren aurrean. Laugarrena, berriz, Sanmieletan; aurtan ere hor izango naiz, meza nagusian-eta".



Bap! taldearen hastapenetan, 1980ko hamarkadan. AITOR ARREGI "TXISTO"

Jose Ignacio Zubeldia Telletxea "Txanpi", musikari ohia

Berrogei urte atzera, punk musikak eztanda egin zueneko lehen baterijoleetakoa izan zen andoaindarra

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Abenduaren 24an, etxekoak inguratuta, zendu zen Jose Ignacio Zubeldia Telletxea. Bere belau-naldikoentzat eta beste askorentzat, berriz, Txanpi zen. 63 urte zituen.

Zumea kaleko eraikin zaharrean, Andoaingo Gaztetxean, makina kontzertu egin ziren 1984tik aurrera eta hura izan zen belaunaldi hartako musikazaleen kabia. Punk musikak eztanda egin zueneko lehen baterijoleetakoa izan zen andoaindarra. Erreferentzietako bat Andoain-Tolosa artean zegoen. Inguruotan sortu ziren Bap!, Tortura Sistematika eta beste hainbat talde. Estilo eta jarrera

berriak ekarri zituzten musikagintzara eta bidegileen artean izan zen "Txanpi". Baterijolea izan zen lehen garai haietan, hizpide ditugun bi talde horietan behintzat.

BAP! taldearen sortzaileetakoa izan zen, beraz, Drake, Eneko eta Andreurekin batera. Laurak, andoaindarra

Urteak igarota, Andoaingo Gaztetxea zegoen toki berean eraikin berria altxa zuten eta hango etxabea erosi zuen Txanpi. Bertan gordetzen zuen kontzertuetarako soinu-ekipoa, urte luzez kontzertuen sonoriziolanetan aritu baitzen. Denbora tarte batez, etxabe berean, Adi izeneko musika denda izan zen.

Alain Urrea Iraola, Xoxokako Jai batzordeko kidea

Istripuz hil zen abenduaren 31n eta gaztearen heriotzak sekulako eragina izan du Xoxoka-Goiburu auzoan

Jon Ander Ubeda URNIETA

Mozotegi Berri etxean ez ziren samurrak izango urte zaharreko azken orduak, eta ondoren etorri direnak ere. Ezta haren lagun, auzokide eta ezagunentzat ere. Alain Urrea Iraola 24 urteko gaz-

tea zen eta haren heriotza kolpe latza izan da. Bereziki, Urnietako Xoxoka-Goiburu auzoan.

Alain, azken urteotan, Xoxokako Jai Batzordean murgilduta zebilen eta parte-hartze handia izaten zuen, besteak beste,

gau sorpresan eta gazteen arteko herri-kirol desfioetan. Umetan hasita, herriko hainbat lagunekin batera, pilota munduan murgildu zen Urnietako Keren eskutik.

Motorzalea zen eta haren aldeko mezuak berehala zabaltzen sareetan. Vilarriño Motoren, adibidez: "biziki sentitzen dugu Alain Urraren heriotza, Olaberriako gure motorshowetan ikustea ohikoa zen".

Hernaniko GI-2132 errepidean izan zen ezbeharra.



Ezkerrean, makurtuta, Alain gaztea Xoxokako jaietako desfioan. AIURRI

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA

Ez ohiko gertaera larria Andoaingo etxebizitza batean

Urte berri egunean, goizaldean, etxean bertan erasoak jasan zuen senar-emazteak

Erredakzioa ANDOAIN

Lapurreta saiakera eta eraso bortitza, halaxe deskribatu zuen Ertzaintzak urte berrian izandako gertaera. Ertzaintzak zabaldutako oharren arabera, urtarilaren 1ean, 08:00k aldera, izan zen gertaera. Bikotea ohean zela ate-joka hasi zitzaizkien. Gizonezkoak ate ireki zuenean lehen kolpeak jaso zituen. Haren emaztea laguntzen ahalegindu zen eta Ertzaintza bertara iritsi arte iraun zuen borrokaldiak. Gertaeren ondorioz, Ertzaintzak bi lagun atxilotu zituen hurrengo orduetan. Andoaingo etxebizitza batean indarrez lapurtzea eta bertan bizi den bikotea jipoitzea egotzita. Etxean erasoa jasan zuen bikoteak osasun-asistentzia jaso behar izan zuen.

Gertaerak sareetan zabalkunde handia izan du eta biktima-

tako batek honako mezua idatzi zuen sare sozial ezagunean: "Nire senarrarekin batera erasoak jasan duen pertsona naiz. Oso gogorra eta bortitza izan da. Ertzaintzari eskerrak eman nahi dizkiot, bikain portatu direlako, baita gu ikustera etorri den alkateari ere, eta ematen ari zaigun laguntza guztiagatik. Era berean, deitzen didaten edo mezuak bidaltzen dizkidan pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiet; guztien aldetik babes handia sentitzen ari gara".

Andoni Alvarez alkateak ere adierazpena egin zuen, sare sozialetan: "Harremanetan jarri gara erasotuekin eta udal baliabideak eskaini dizkiegu. Ertzaintzarekin elkarlanean ari gara, gertaerak argitzeko. Horrelako gertaerak ez dute lekurik gure herrian".



Andoaingo farmazien artean adostutako erabakia izan da. AIURRI

Aldaketak guardiako ordutegian

Guardian dagoen farmazia, astelehenetik ostiralera,
zabalik izango da 09:00-20:00 orduen artean


Erredakzioa ANDOAIN

Astelehenetik ostiralera alda-
keta eman da guardiako farma-
zien ordutegian: zerbitzua bi
orduz murriztu dute. Ondorioz,
guardian dagoen farmazia, ete-
nik gabe zabalik izango da 09:00-
20:00 orduen artean. Abenduaren
31ra bitarte, ordutegi hori bi

orduz luzeagoa zen, zehazki, 22:00ak arte. Baina, euren artean adostutakoaren arabera, ordutegia murriztea erabaki dute.

Guardiako farmazien ordutegia 2026an

09:00-20:00 Astelehena-ostirala.
09:00-22:00 Asteburuak.



Zumea kolean dute negozioa. AIURRI

Urrats Inprimategiak ordutegia egokitu du, urtea hastearekin bat

Ordutegia honakoa izango da 2026an: astelehenean, asteartean eta asteazkenean aurrez aurreko arreta zerbitzua emango dute goizeko 09:00etatik arratsaldeko 15:00etara. Ostegunean eta ostiralean, aldez, itxita izango da.

Egunero, hori bai, telefonoz eta emailaz arreta ematen jarraituko dute, 08:00etatik 17:00etara. Telefonoak: 688 618 548 / 943 57 52 93.



Aiurri eskuragarri:
Etxe etxeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko
harpidetza-saria 50 eurokoa da.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta
merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubedea.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:
Garbierie Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaileak: Rocío Arias (Andoain),
Aurri Jauregi, Jerry Gonzalez (Urnieta).

Diseinua: Goiena / TOKKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikiak:
diseinu@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 637.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.





















Kontseiluaren hurrengo hitzordua, Iruñean

Euskalgintzaren Kontseiluak antolatutako «Pizkundea» ekitaldira etorri ziren milaka euskaltzalek Bilbao Arena bete zuten. Kontseiluak balorazio positiboa eta baikorra egin du, eta aurrera begirako erronketan jarri du fokua



Nazio mailako ekitaldia antolatu zuten Bilbon, joan zen abenduaren 27an. KONTSEILUA

Erredakzioa ANDOAIN

Kontseiluaren iritziz, ekitaldian arrakastak erakutsi zuen jende askorengan oso txertatuta dagoela euskaltzaletasuna, badagoela gihar hori indartzeko gogoia eta premia. Badagoela hizkuntzaren auziaz hitz egiteko, euskarak sortzen digun kezka hitz egiteko, eta elkarguneak sortzeko beharra.

Izan ere, azken ikerketa eta datuek erakusten duten euskararen larrialdi egoerari erantzuteko ezinbestekoa da euskal-

tzaletasuna indartzea. Kontseiluak bide horretan lanean jarraituko du, eta atzoko ekitaldian azpimarratu bezala, euskaltzaleok ekiteko garaia da: toki guztietan antolatzeko, hiztun komunitatea ahalduzko, euskara eta euskaltzaletasuna lehen lerrora ekartzeko garaia. Horretarako proposamen bat aurkeztu du Kontseiluak, Euskaltzaleon gida izenekoa, www.pizkundea.eus webgunean ikus daitekeena.

Halaber, euskalgintzak aspalditik aldarrikatu duen bezala,

euskararen biziberritzeak aldaketa sakon bat behar du, hizkuntza-politiketan jauzi bat, adostasun sozial eta politiko berri batean oinarrituko dena. Euskaraz bizitzeko behar diren baldintzak bermatzeaz gain, egun indarrean dauden minorientzako politiken paradigma gainditu eta euskararen normalizazioa gizarte osoaren eginbeharra bilakatuko duena.

Zentzu horretan, Kontseiluak, askotariko ehundik gora eragilerekin batera, irailean aurkez-

tu zuen Itun Soziopolitiko berriarako eskaintza proposamena ekarri du gogora, euskararen ezagutza orokortzea eta erabilera normalerako baldintzak sortzea helburu dituena. Gizartean duten erabakimen eta eragin gaitasunetik, Kontseiluak erakundeei eta indar politikoei eskatzen die proposamena aintzat hartu dezatela.

Era berean, ekitaldian ekarpena egin zuten kulturgileek erakutsi zuten euskaratik eta euskaraz sortutako kultura ezinbesteko unibertsoa dela euskaraz aurrera egingo badu, eta euskara biziberritzeko ezinbestekoak direla euskarazko kulturaren aldeko kultur-politika sendoak egitea.

Datorren ekainaren 13an Iruñea euskaltzale guztien bilgune bilakatzeko mobilizazioa deitu du Kontseiluak. Datozen hilabetetan zehar ezagutzera emango dira xehetasun guztiak.

Euskaltzale guztiei eskerrak

Kontseiluak eskerrak eman nahi dizkie Miribilla auzoko kirolgunean elkartu ziren 6.500 lagunei eta herriz herri inplikatu diren euskaltzaleei. Baita babesa eman eta bertaratu ziren erakunde, alderdi, sindikatu eta eragile guztiei; ekitaldian parte hartu zuten musikari, aktore, kulturgile eta sortzaileei; eta antolaketan, produkzio, azpiegitura, logistika, segurtasun zein komunikazio lanetan aritu diren ehunka langile eta boluntarioei ere.

IRUÑEAN EUSKALTZALEEN BILGUNE BILAKATZEKO MOBILIZAZIOA DEITU DU KONTSEILUAK



Hitzordua iragartzeko afitxa. GKS

"Faxismoari aurre egiteko" hitzordua deitu du GKS

Bilbon manifestazioa egingo dute hilaren 31n. Hitzorduari lotuta, aurkezpenak egingo dituzte

Erredakzioa URNIETA

Faxismoaren eta estatuen autoritarismoaren aurrean, urtarri-laren 31n manifestazioak antolatu ditu Bilbon eta Iruñean. "Egungo testuingurua ikusita, lehentasunezkoa ikusten dugu ideia erreakzionarioei, estatuen erreforma autoritarioari eta hedatzen ari den faxismoari aurre egitea", adierazi dute deitzaileek.

Datozen egunotan aurkezpenak antolatu dituzte Beterri-Buruntzan. Andoainen urtailaren 10ean izango da, eguerdiko 12:00etan hasita, Gaztetxean. Urnietan, egun eta ordu berean, udal pilotalekuaren atarian.

Jendarteari Bilbora hurbiltzeko deia luzatu dio Sarek

"Ezin da gehiago luzatu, ezin da gehiago itxaron" lelopean, manifestazioa deitu dute Bilbon

Erredakzioa ANDOAIN

"Ia hiru urte igaro dira hainbeste sufrimendu eragin duen urrutze-politikari amaiera eman zitzaionetik; hiru urte, halaber, espetxeko zigorrak lehen graduano edo isolamendu-ziegetan bete-

tzeari utzi zitzaionetik. Horregatik, etorkizun hurbilari baikor begiratu behar diogu. Litekeena da 2026. urte hau bide luze baten azken txanpa izatea eta itxaropenezko etorkizuna ikusten hastea. Horregatik, aurtan ere

euskal gizarteari dei egin diogu manifestazio honetan parte har dezan", adierazpen horiek egin zituzten manifestazioa deitzeko agerraldian. Manifestazioa La Casillan hasiko da, arratsaldeko 17:00etan, eta Bilboko Udaletxean amaituko da. Manifestazioaren amaieran Xabat Illarregi eta Aitor Etxeberriazarraga bertso-lariek abestuko dute. Segidan, Joseba Azkarragak eta Bego Atxak Sareren manifestua irakurriko dute. Eta, azkenik, Pantxoak eta Peioak abestuko dute.



Agerraldia egin zuten Bilbon, aurreko astean. SARE

Ekimen solidarioa, Donostian

Opil Solidarioa ekimena antolatu zuen Caritas Gipuzkoa elkarteak, urtarilaren 5ean, Donostian. Zarauzko Otxotea eta Urki Dantza Taldeko plaza-dantza taldea gonbidatu zituzten, ekimena girotzera. Argazkian ikus daitekeenez, talde handia hurbildu zen Andoaindik hiriburura. Gipuzkoako Artisau Gozogileen elkarteak egindako errege opil solidarioa banatu zuten Gipuzkoa plazan. Bildutako diru guztia Caritas Gipuzkoako programa eta zentroei bideratuko dute, gizarte bazterkeria bizi dutenei laguntzeko.



URKI

Izotza, eskola-itzuleran

Zero graduko eta zero azpiko hotzberoa izan da urteko lehen egunetan. Asteazkenean, eskola-itzulera egunean, inguruko espaloiak, errepideak eta zebra-bideak izoztuta zeuden. Arriskutsua izan daiteke oinezkoentzat nahiz autoentzat. Andoainen, esaterako, irristaketak eta erorketak saihesteko gatza botatzen aritu ziren udaltzainak eta udal brigadako langileak. Urtarrilaren 7akoa da, bestalde, Adarramendiko argazkia.



Espaloiak eta zebra-bideak arriskutsuak izan daitezke izotzarekin. AIURRI



Goizgorri, Lasarte-Oriatik. Adarramendiko ikuspegia ikusgarria zen. AIURRI



Oinezkoak eta autoak dabiltzan hainbat gune izoztuta agertu ziren. Argazkia Oria ibaitik gertukoa da. AIURRI



Joakin Larretan, "Txurreria"ren atzealdean, espaloï zati bat erabat izoztuta zegoen. AIURRI



Eguraldi kaskarra ez da oztopo izan

Ohiturak biziberritzeko egunak igaro dira eta bada urtearen amaieran eta hasieran errepikatu den elementua: eguraldi hotza. Temperatura baxuak izanagatik ere, jendarteak kalera irten da Gabonak ospatzera



Aukeran dantza taldeko kideak Santomas egunean. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Santomas eguna, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Gabon zahrreko kantu saioa, Urte zaharreko lasterketa, Errege Magoen kabalkada... horiexek

dira, ziurrenik, Gabonetako hitzordu seinalatuak. Tradizioan oinarrituta daude, gehien-gehienak, eta horietan guztietan herriarren partaidetza handia izan da.

Eta ezin aipatu gabe utzi Kantazaun, Poxta Zahar eta gaine-rako gizarte eragileak. Boluntarioen lana ezinbestekoa baita hitzordu horiek guztiak antolatu ahal izateko.



Santomas eguneko postuetakoa, Plazido Muxika plazan. AIURRI



Sagardoa eta txistorra dastatzeko aukera izan zen hilaren 21ean. AIURRI



Kantari taldea Kontsejupean, Kantauzaunen kalejiran. AIURRI



Kantazaun taldekoek lehen emanaldia egin zuten Kontsejupean, eta handik Plazido Muxikarantz abiatu ziren. AIURRI



Olentzero, Mari Domingi eta laguntzaile-taldea, hilaren 23an. AIURRI



Errege Magoak eta laguntzaileak, Urnietako elizan. AIURRI



Magale ikastetxeko musikariak, hilaren 24an. AIURRI



Egape ikastolako kantariak, hilaren 24an. AIURRI

Kabalkada, ospakizunen amaiera



Gutunak jaso zituzten Errege Magoek Urnietako elizan. AIURRI

Eliza Dozenaka haur hurbildu zen, bazkalostean, San Miguel elizara. Bertan gutunak jaso eta eskaerak entzuteko zain zituzten Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak. Handik gutxira abiatu zen kabalkada.



Kabalkada Lobera baserritik abiatu zen. AIURRI

Kalea Ohi bezala, Lobera baserri ingurutik agertu ziren zaldi gainean eguneko protagonista nagusiak. Ez ziren bakarrik ibili, alboan zituzten paje eta laguntzaile ugari. Haurren begiradapean egin zuten plazarainoko ibilbidea.



Argazkiak ateratzeko aukera izan zen Kontsejupean. AIURRI

Kontsejupea Gutunak jaso eta gutxira Errege Magoak agurtzeko aukera izan zuten hurrek, udaletxearen atarian. Hotzak ez zuen inor kikildu eta dozenaka izan ziren Kontsejupera hurbildu zirenak. Une hori baliatu zuten askok eta askok argazkia ateratzeko.



Aiurri.eus, Gabonetako albistegia.
ALBISTEAK, AGENDA, MULTIMEDIA

www.aiurri.eus



Gabonetako ospakizunek utzitako postalak

Aiurri.eus webgunean Gabonen jarraipen zehatza egin du Aiurriko erredakzio-taldeak. Ohi bezala, gizarte eragileek edota Udalak antolatutako ekitaldi ugari izan da azken asteotan. Lagintxoia, jarraian, argazki-bilduma honetan



Jendetza hurbildu zen hilaren 24an Kale Nagusira. AIURRI



Aho bete hortz ziren txikienak, Olentzero eta Mari Domingi Zumea kalera hurbildu zirenean. AIURRI



Santomas eguneko ospakizuna Olagain auzo elkarteak. AIURRI



Leizaran institutuko ikasleak eguneko egoitzan izan ziren Gabonetan. AIURRI



Urki dantza taldearen gaztain-jatea, Juanita Alkain plazatxoan. AIURRI



Txu-txu trenak, ohikoa Gabonetan. AIURRI



Jaiotzaren eta estalpearen karroza, aurtengo Kabalkadan. AIURRI



Errege Magoak eta Jesus haurtxoa, udaletxean. AIURRI



Errege Magoekin egoteko aukera baliatu zuten Andoaingo haurrek. AIURRI

Urte amaierako hamaiketakoa



Bertxin elkarteak antolatu zuen urte amaierako hamaiketakoa. AIURRI

Bertxin Jubilatuta eta Pentsiodunen elkarteak hamaiketako goxoa prestatu zuten bazkideei, abenduaren 31n. Urteroko usadioari eutsi zioten, beste urte batez, elkarteko zuzendaritza batzordeko kideek eta zenbait boluntarioek. Honatx, sukaldetan lanean aritu zirenak: Angelita Ballesterro, Flor Lopez, Jovita Zarate, Domingo Garcia, Juli Correias, Carmen Ortega, Paco Vicente, Mari Angeles Garcia eta Jesus Alvarez.



Hamaiketakoaz arduratu zen lantaldea. AIURRI



Olagain Udaltxistulari Elkartea, adinekoen egoitzan. AIURRI

San Juan bataiatzailea

San Juan Bataiatzailea zahar egoitzara gabon-doinuak eraman zituzten Olagain Udaltxistulari Elkartek, hilaren 2an. Egoiliarrek, haien senideak eta bertako zaindaria izan ziren emanaldi bereziaren entzuleak.

Jendetza bildu zuen Poxta Zaharrek

LASTERKETA 200dik gora lasterkariren parte-hartzea lortzea meritu handikoa da. Beste behin ere hitzordu parte-hartzailea eta alaia izan zen Urte Zaharreko lasterketa. Askotariko mozorroak ikusi ziren gainera, asko eta asko bikainak



Egarria izan orduko tabernara sartu zen poteatzaile kuadrilla. Helmugara iristea ez baitzen lehentasuna. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Giro aparta sortu zen Poxta Zaharrek antolatu zuen Urte Zaharreko lasterketan. Parte-hartze handiarekin, gainera: 200dik gora lasterkari elkartu zen San Juan plazako irteeran. Aurretik, haur mailako lasterketak egin ziren plazatik irten gabe.

Helduen lasterketan, ibilbide gorabeheratsuan, lasterkariek dozenaka herrikideren animoak jaso zituzten. Lasterkari askok, gainera, bide bazterren zirenen irria eragin zuten. Esaterako, V16 balizaz mozorrotu ziren bi korrikalariak, taberna batean baino gehiagotan geldialdia egin zuten poteatzaileak, kuadroa

margotzen ari zen margolaria, 30 urtera sartzearen kuadrilla...

Irabazleak, urnietarrak

Ander Zubizarreta eta Iruñe Mateo izan ziren azkarrenak. Gizonezkoetan lehia estua izan zen eta, helmugan, Unai Lizeagaren eta Josu Gomezen aurretik iritsi zen Zubizarreta.



1996an jaioetako belaunaldikideak hamarkada berria ospatzen hasi dira. AIURRI



Aurtengo txapeldunak. AIURRI



Arreba gogoan, ziztu bizian ibili zen. AIURRI



Txalogarria da batzuren umorea. AIURRI



Inauterietako mozorroaren aurrerapena.



Dozenaka laguni esker egin ahal izan zen Urte Zaharreko lasterketa. Argazkian, trafikoa bideratzeko eta lasterketa antolatzeko boluntario-taldea. AIURRI

Ehunka lagun Urte Zaharreko lasterketan

LASTERKETA Beste behin ere, laurehun lagunetik gora irten ziren Zumea plazako irteeratik. Kaleberrian gora eta Karrika aldera zihoan ibilbidean dozenaka lagun zeuden lasterkariei animoak ematen



Bertako eta Zeelanda Berriko wesneytarrak, elkar hartuta, helmugara iritsi zirenekoa. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN
Abenduaren 24an hasi eta urtarilaren 6ra bitarte negu giroko hotzberoa izan dugu Andoainen eta, beraz, hilaren 31 ez zen salbuespena izan. Prezipitaziorik gabe, hori bai, urte zaharrekoa lasterka aritzeko goiz aproposa zen. Lagunarteko giroan aritzeko ehunka lagun elkartu zen irteeran. Haietako batzurentzat

lasterketa bat gehiago zen eta ziztu bizian abiatu ziren lehen postuen bila.

Podiuma

- 1. Iñigo Alzola (Arrasate), 16:13.
- 2. Xabier Lizarrondo (Don.), 16:27.
- 3. Jon Zubeldia (Asteasu), 16:30.
- 1. Itxaro Zabaleta (Leitza), 19:49.
- 2. Maddi Elizasu (Andoain), 21:22.
- 3. Uxune Tena (Andoain), 21:36.

Proba amaituta, sari banaketa ekitaldia eta babesleek emandako sarien zozketa egin zuten-Zumea plazan bertan. Aipatzekoa da lasterketa egin ahal izateko boluntario askoren laguntza behar izaten dela. Haien laguntzarik gabe ez legoke probarik. Eta, bestalde, mozzorrotu ziren lasterkariek kolorez eta umorez bete zuten urteko azken eguna.



Mozorro onena, zalantzarik gabe, onena zen. AIURRI



Lagunartean lasterka aritzeko aukera polita da urte zahar eguneko. AIURRI



Poza nagusi zen helmugara iritsi zirenen gehiengoarengan. AIURRI



Lasterketa ona egitea eta mozzorrotzea bateragarria da. AIURRI



Zumeatarrako gaztetxoek talde polita irten zen, laguntzaileen zaintzapean. AIURRI

Andoain Cup txapelketa, Gabonetako erreferentea

ESKUBALOIA Leizaran Eskubaloi taldeak, Andoaingo Udalaren eta Granollers Cup-en laguntzarekin, emakumezkoen eskubaloi txapelketaren hirugarren edizioa antolatu du. Hiru egunez, ehunka emakumezko jokalaririk lehiatu ziren Arraten eta Allurralden



Burlatako Malkaitz taldeak irabazi du Andoain Cup txapelketaren hirugarren edizioa. AIURRI

Erredakzioa

ESKUALDEA
Burlatako eta Eibarko jokalarien arteko final parekatuaren ondoren, penaltietan erabaki zen garaipena: Nafarroako jokalaria izan dira, azkenik, irabazleak. Hala, aurtengo irabazleek 2026ko ekainaren 24tik 28ra egingo den Granollers Cup-ean parte hartzeko txartela lortu dute. Hirugarren eta laugarren postuan sailkatu ziren, hurrenez hurren, Saioko Mimai Estetikak (Donostia) eta BM San Juan Berdea-

Donibane Berdeak (Iruñea) taldeak. Leizaran Urkabe taldeak lehen egunean parte hartu zuen eta, aldiz, Leizaran McDonalds taldea bigarren egunean eta azken fasean.

Eskertza

"Leizaran Eskubaloi Taldeak bereziki eskertu nahi du Andoaingo Udalaren eta Granollers Cup-en laguntza, baita Laboral Kutxa, Andoain McDonalds, Urkabe, La Gula del Norte, In-

salus, Pasquier, Lixone eta Cafas Baqueren laguntza ere, haien babesa ezinbestekoa izan baita txapelketa burutzeko. Era berean, klubak Arbitroen batzordearen, Euskadiko eta Gipuzkoako Federazioaren eta Andoaingo kiroldegiko langileen lana goraitu nahi du. Gainera, ez da ahaztu behar boluntario-sareak egindako lana, modu eskuzabal eta eredu-garrian ekitaldia antolatzeke eta ondo funtzionatzeko lagungarri izan baita".



Leizaran McDonalds azken txanpa jokatzeko sailkatu zen. AIURRI



Leizaran Urkabe lehen jardunaldian aritu zen. AIURRI



Hiru egunez jendetza hurbildu da Ubitartera. AIURRI

Gabonetako txapelketa

Infantil eta kadete mailako eskubaloio nesken txapelketa antolatu zuen UKEK, Gabonetan. Abenduaren 27an, Urnietako taldeez gain, jokoan aritu ziren Pulpo, Astigarraga, Egia, Irauli eta Zarautz klubak. Benjamin eta alebin mailako ikasle gazteei ere kantxan aritzeko aukera eman zieten, jardunaldi berean. Asteburuan ekingo diote ligari.



UKE ESKUBALOIA



UKE ESKUBALOIA

Galarretako bi finaletan, urnietarrak txapeldun

ERREMONTEA Binakakoan, Ansa eta Zubiri garaile; Bigaren mailakoan, Ander eta Joseba Goikoetxea



Ansak lehen txapela du binakakoan. ORIAMENDI

Erredakzioa ANDOAIN Imanol Ansak banakako hainbat txapel lortu ditu bere kirol ibilbidean eta honako haxe du binaka lortzen duen lehena. Jokatu duen binakako laugarren finalean lortu du txapela. Ha-

markada honetako erreferente bilakatu da, honezkero, urnietarra. Bigarren mailako finalean, Ander Goikoetxea izan zen irabazlea. Harekin batera beste Goikoetxea bat, Joseba zestoarra.



Goikoetxea urnietarra bigarren mailako txapelduna izan zen. ORIAMENDI

TXIRRINDULARITZA Azken garaipena, Andoaingo elastikoa jantzita



Aranguren garaile izan zen. ANDOAINGO

Ziklokroseko Euskadiko txapelketan, Irati Aranguren Carbaiedak ez zuen aurkaririk izan eta lasterketa buruan hasieratik amaierara egon zen bakarra izan zen. Bigarren sailkatua den Mirari Gotxi Olartekoetxearen (BER) aurretik helmugaratu zen, minutu eta erdiko aldearekin. Helmugan honakoa adierazi zuen: "Pozik nago Andoaingo elastikoarekin egin dudana azken lasterketan garaipena eskuratu dudalako". 2026an txirrindularitza profesionalera egingo du jauzi: Laboral Kutxa taldearen maillotarekin ariko da.

FUTBOLA Urteko lehen partida, Anaitasunaren aurka

Ohorezko erregional maila 15. jardunaldira iritsi da eta Euskaldunak urteko lehen partida Anaitasunaren zelaian jokatu du. Sailkapenean bigarren doaz azkoitiarrak. Euskalduna, aldiz, 17. postuan dago eta argi dago mailari eustea izango dela helburu nagusia. Hernani, Mutriku, Beasain B... talde horien aurretik amaitzea da xedea.

FUTBOLA Gorengo mailako emakumezkoak

Bi partidak larunbatean jokatu dira. Urnieta etxean ariko da Luberriren aurka (18:00). Euskaldunak bolada txarra eten nahi du San Tomasen zelaian (19:10).

Zirrarez beteriko finala, Andoaingo Errege txapelketan

ESKUBALOIA Kadete eta jubenil mailan, emakumezko txapelketa bana antolatu zuen Leizaranek



Jubenil mailakoa penaltietan erabaki zen. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN Leizaran eskubaloit taldeak urtarilaren 3an antolatu zuen kadete eta jubenil mailako txapelketan Urdaibai taldea gailendu zen. Bereziki zirrargarria izan zen jubenil mailako finala: penaltietan erabaki zen txapel-

keta. Honatx, Erregetako XXII. Eskubaloit txapelketako finalen emaitzak: •Kadeteak: Ordizia 13-25 Urdaibai. •Jubenilak: Saieko 27-28 Urdaibai. Jubenil mailako finala 26-26 amaitu zen eta, penaltietan, Urdaibai gailendu zen.



Nahia Patinoren aldeko zozketa solidarioa egin zuten. AIURRI

Urnieta
udala

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



AIURRI



AIURRI

Kirol Galak Andoainen eta Urnietan

Andoaingo kirol talde, kirolari eta kirolzale ugari batu zituen 2025eko Kirol Lorpenen ekitaldia ospatu zuten Basteron, Gabonen atarian. Lau multzotan banatu zituzten sari emateak:

txapeldunak eta azpitxapeldunak, taldeak, nazioarte mailan parte-hartzeak, eta, Aipamen Berezia. Urnietan ekitaldi bera egin zuten abenduaren 23an. Lorpen handiak eskuratu zituzten kirol taldeak eta kirolariak nabarmendu zituzten Saroben antolatutako ekitaldian. Tamaina ertaineko udalerrria izanik, lorpen handiak izan zirela nabarmendu zuten. Bi ekitaldien kronikak jasota daude Aiurri.eus webgunean, argazkiz eta bideoz hornituta.



“Somos polvo de estrellas” antzezlanaren aurkeztuko du Saroben. AIURRI

Adrian Cumbres Alonso gazte urnietarraren estreinaldia

Larunbat honetan, iluntzeko 19:00tan hasita, zazpi pertsonaiaren larruan sartuko da aktore gaztea

Erredakzioa URNIETA

“Somos polvo de estrellas” antzezlanaren aurkeztuko du Adrian Cumbres Alonso gazte urnietarrak, asteburu honetan. Sormen-prozesu guztiaz arduratu da, gainera: zuzendaritza, dramaturgia, interpretazioa, argien eta soinuaren diseinua, baita eszenografia eta jantziak egitea ere.

Honela deskribatu daiteke antzezlanaren: “Aktore berak in-

terpretatutako 7 pertsonaiak beren bizitzak egile batek idatzi dituela jakiten dute. Bakoitza saiatuko da, bere erara, benetan existitzen ote diren egiaztatzen. Nork sortu zituen eta zergatik ulertu nahian, fikzioaren eta errealitatearen arteko mugak hautsiko dituzte. Sorkuntzari eta antzerkiaz bizitzatik bereizten duen ildo finari buruzko hausnarketa existentzial eta dramatikoak”.



150 kiloko eskultura urpetik ateratzen ari diren unean. GUKA

Urpetik berreskuratu dute Olazabalen eskultura

Azaroaren 22an ezezagunek ibaira jaurti zuten Saregile plazan ipinita zegoen eskultura

Erredakzioa ANDOAIN

Azaroaren 22an ezezagunek ibaira jaurti zuten Zumaiako Saregile plazan ipinita zegoen Iñaki Olazabalen omenezko Zinka eskultura, eta desagertuta egon zen hainbat astez. Gogoratu behar da Euskal Herriko hainbat eskulturgilek Olazabalen omenezko erakusketa ireki zutela Oxford aretoan, azaroaren 8an. Ondoko plazan ipini zuten aipatu eskultura. Urpekariek, azkenik, aben-

duaren amaieran berreskuratu zuten. Ezaguna denez, Iñaki Olazabal Ezeiza maiatzean 4an zendu zen. Andoainen sortua, Zumaiaren egin zituen azken urteak. Bere ibilbide artistikoan, nagusiki, zinka erabilia egin zituen artelan ezagunenak. Askoren artean, Gipuzkoako Batzar Nagusien eraikinaren kanpoaldean dagoena edota Oria ibaian egindako pieza-sorta. Gurean, zehazki, Txistoki pasealekuan.

KORRIKAren ibilbidea ezagutzera eman du AEKk



Aurtengo leloa eta logoa. KORRIKA

24. KORRIKAren ibilbidea prest dauka AEKk. Edizio honetan, euskararen aldeko ekimen erraldoia Zuberoako Atharratzetik aterako da martxoaren 19an, arratsaldeko 15:30ean, eta, hamaika egunez Euskal Herri osoa igaro ostean, Bilbon amaituko da, hil bereko 29an. 2.175 kilometroko eta 3.436 lekuko hartze izango ditu aurtengoak. Kilometroak erreserbatzeko aukera, berriz, otsailaren 1ean zabalduko da.

Martxoaren 24n, eskualdean

Bertatik noiz igaroko da? Galdera hori ohikoa izaten da ibilbidea aurkezten dutenean. Bada, Andoaindik eta Urnietatik martxoaren 24an igaroko da. Astear-tearekin izango da hitzordua: Aduna aldetik iritsiko da Beterri-Buruntzara eta, segidan, Hernani eta Astigarraga aldera joko du euskararen aldeko lasterketak.

2026

EUSKADIKO GAZTEAK KANIKIDETZAN

IZEN-EMATEA:

ABENDUAREN 24TIK OTSAILAREN 23RA ARTE

AGENDA

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ODOL-EMAILEAK

ANDOAIN Hitzordua

Egunean bertan, goizez, hitzordua hartu beharko da, 943 007 884 telefonora deituta. Gotanta.eus webgunaren bidez ere izena eman daiteke.

16:30-20:15, Anbulatorioa.
Urtarrilak 12, astelehena.

MANIFESTAZIOA

BILBO Presoen eskubideen alde

Sarek deitutakoa, Andoaindik eta Urnietatik Bilbora joateko deia luzatu dute.

17:00, La Casilla.
Urtarrilak 10, larunbata.

AURKEZPENAK

URNIETA, ANDOAIN Bilkurak

Faxismoaren eta estatuen autoritarismoaren aurrean, urtarilaren 31n manifestazioa deitu du GKS. Hitzorduen harira, aurkezpenak antolatuta dituzte eskualdean.

12:00, Andoango Gaztetxea.
12:00, Urnietako Udal pilotalekua.
Urtarrilak 10, larunbata.

ANTZERKIA

URNIETA Adrian Cumbres

"Somos polvo de estrellas" antzezlanaren aurkeztuko du gazte urnietarrak.

19:00, Sarobe.
Urtarrilak 10, larunbata.



Artelanak Cristina Guerrerorenak dira. AIURRI

ANDOAIN Erakusketa

"¡Cuidado! ¡Problemas de visibilidad!", Cristina Guerreroren eskutik.
Ohiko ordutegia,
Bastero Kulturunea.

ANDOAIN Trajea

Joseba Apaolaza eta Ander Hormaza aktore ezagunak dira bi protagonistak.

19:30, Bastero.
Urtarrilak 16, ostirala.

ANDOAIN Promesarik txikiena

Infinitudrama konpainia.
"Zein da lagun bati egin diezaiokegun promesarik txikiena?"

Antzezlanaren zirrikitu bat da, laguntasunetik abitatuta komunitateari erreparatzeko.
19:30, Bastero.
Urtarrilak 23, ostirala.

URNIETA Scrooge eta mamuak

Khea Ziarter konpainiak panpinak erabili ditu sorkuntza honetan.

17:30, Sarobe.
Urtarrilak 25, igandea.

LEHIAKETA

URNIETA Igerilekuko taberna

Udalak udal igerilekuko tabernaren ustiapena lehiaketara ateratu du, hasiera batean, hiru urterako. Informazio osoa Urnieta.ues webgunean.

Azken eguna: Urtarrilak 22.



ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Avatar: Fuego y ceniza

Larunbata, 10. 16:00, 19:30.
Igandea, 11. 16:00, 19:30.
Aste., 12. 19:00.

Bob Esponja: Una aventura Pirata

Larunbata, 17. 17:00.
Igandea, 18. 17:00.

Rondallas

Larunbata, 17. 19:30.
Igandea, 18. 19:30.
Aste., 19. 17:00, 19:30.



SINOPSIS

Avatar: Fuego y ceniza

Zuzendaria: James Cameron. Aktoreak: Sam Worthington, Zoe Saldña, Stephen Lang, Oona Chaplin, Cliff Curtis, Kate Winslet...
Generoa: Zientzia fikzioa, abenturak. Iraupena: 197 minutu.



Avatar sagaren hirugarrena

"Avatar" sagaren hirugarren emanaldia iristear da Basterora. Errautsen Herria aurkezten du, Na'vi klan ez hain baketsua, indarkeria erabiliko duena bere helburuak lortu behar badu, beste klan batzuen aurka bada ere. Asteburuan hori da ikusgai izango den film bakarra, larunbatean eta igandean bina saio izango baitira. Eta, astelehenean, bakarra, ez ohiko ordutegian: iluntzeko 19:00tan.

2154. urtean girotuta dago, eta istorioan kontatzen diren gertaerak Pandora izeneko lekuan kokatzen dira. Bertan Na'vi izeneko espezie humanoide bat bizi da, eta gizakiekin gatazkan daude, haien klanetako bat zuhaitz erraldoi baten inguruan kokatuta baitago. Zuhaitz horrek oso preziatua den mineral baten meatze erraldoi bat estaltzen du; mineral horrek Lurreko energia-arazoak konpontzeko irtenbidea ekarriko luke.

Ereñotzuko IRRINTZI TABERNA
ustiatzeko dokumentuak
aurkezteko epea irekita dago.

Informazio gehiago,
Hernaniko Udaleko
web orriko
kontratatzaileraren profilean.

Ereñotzuko



Auzo Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA